

2016-17KO EPE: IZANGAIEN BEHIN-BEHINEKO ZERRENDA JASOTZEN DUTEN EBAZPENAK ARGITARATZEA: 2020KO EKAINERAKO AURREIKUSTEN DIREN KATEGORIAK ETA COVID-19A DELA-ETA HARTUTAKO NEURRIAK.

2020ko ekainaren 1ean amaitu zen alarma-egoera ezartzearen ondorioz administrazio-prozeduren epeen etetea, **Osasuneko Mahai Sektorialak maitzaren 7an egindako bileran** jakinarazi zen bezala. Horrenbestez, Osakidetzak **2016-17ko Enplegu Publikorako Eskaintzaren** garapenarekin jarraitzen du. **Izangaien behin-behineko zerrenda jasotzen duten ebazpenak** argitaratzeari dagokionez, **2020ko ekainean** jarduera hauek egin dira:

Kontuan harturik COVID-19aren pandemiak ekarritako osasun-egoera, Osakidetzako Zuzendaritzak beharrezkotzat jo du egokitzea izangaiek egin beharrekoak; hau da, izangaien behin-behineko zerrenda jasotzen duten ebazpenetan agertzen diren eta, beraz, destinoa lortzeko aukera duten izangaiek egin beharrekoak, denon babes bermatzeko, bai Osakidetzako langileena, bai hautaketa-prozesuan parte hartzen dutenena. **Ildo horretan, bi neurri hartu dira:**

- **POUK hitzordua ematea lanean hasteko azterketa medikoa egiteko:** Osakidetzako zerbitzu-erakundeetako Prebentzioko Oinarrizko Unitateek emango diete destinoa lortzeko aukera duten izangaiei azterketa medikoa egiteko hitzordua, dagokion ebazpena argitaratzen den egunetik 2020ko urrira arteko epean; beraz, izangaiek ez dute azterketa mediko horretarako hitzordurik esakatu beharko.
- **Zerbitzu-erakundeetako Pertsonaleko Zuzendaritzek eta Zuzendaritza Nagusiko Hautaketa eta Horniketa Zerbitzuak dokumentazioa entregatzeko hitzordua:** zerbitzu-erakundeetako Pertsonaleko Zuzendaritzek, beren langileentzat, eta Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiko Hautaketa eta Horniketa Zerbitzuak, gainerako hautagaiarentzat, Ebazpenean adierazitako 15 egun balioduneko epean, destinoa izateko aukera duten izangaiei hitzordua emango diete dokumentazioa entregatzeko. 2016-17ko EPEaren webgunean, Osakidetzako zerbitzu-erakundeen zerrenda eta harremanetarako posta elektronikoa daude.

Izangaien behin-behineko zerrenda batzuk 2020ko ekainean argitaratzea aurreikusten da, hain zuzen ere **kategoria hauei** dagozkienak:

Osteguna, 2020ko ekainaren 11:

- Erradiodiagnostikoko Tek. Esp.
- Erradioterapiako Tek. Esp.
- Sukaldaria
- Zeladorea
- Zerbitzuetako Langilea

Osteguna, 2020ko ekainaren 18a:

- Erizaintzako Laguntzailea

Osteguna, 2020ko ekainaren 25a:

- Administrari Laguntzailea

Uztailean eta abuztuan ez da aurreikusten 2016-17ko Enplegu Publikorako Eskaintzaren izangaien behin-behineko zerrenda jasotzen duen ebazpenik argitaratzea.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko ekainaren 10ean